

## "Tubi" k Euskal Herriko onena izaten jarraituten dau lastoagaz

15. orrialdea

## Arratian grabautako *Pikadero* filma Donostiako Zinemaldian

Zuzendari Barrien sailean estrenauko da. Pelikula hau Arratian grabauta dago, euskeraz da eta bertan agertuten diran estra gehienak be arratiarrak dira. Ben Sharrock britaniarra da pelikulearen zuzendaria eta Irune Gurtubai igorretarra produktorea. **17. orrialdea**



## Mendi Martxea eta Mendi Astea Areatzan hilaren 9tik 12ra

14. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 235

2015eko urri lehenengoaren 1a hamabostekaria  
www.begitu.org

## Artea eta Zeberioko jaiak

Gure eremuko atzenengo udako herriko jaiak ospatuko dira hamabostaldi honetan. Urri lehenengoa jaietan murgilduta hasiko dabe zeberioztarrak, txupina hilaren 2an botako daben arren. Artean, barriz, jaiak hilaren 8an hasiko dira eta 13ra arte luzatuko dira.


**Z**eberioko musika kartela aitzazeko modukoa da. Izan be, bariku eta zapatuko gaubetan sei musika taldek joko dabe. Barikuan, hilak 4, rock talde bik, The Zepo eta Rolling Dice taldeak eskeiniko dabez kontzertuak. Kontzertuon aurretik eta ostean Haitzama taldeagaz erromeria egongo da. Hurrengo egunean, Fetitxe, Eskean Kristö eta Governors.

Arteko jaietan Arcada Social taldeak joko dau zapatu gaubean. Erromeriak, mariatiak, kalejirak, txarangak eta abar ipiniko deutse soinu jaiak. Jai Batzordeak, uda honetan gertatutako eraso sexistaz kezkatuta, pentsakera, jokabide eta praktika batzuk aldatzera animau ditu herritarrak, jaietan danok gozatuteko. **5. eta 7. orrialdeak**

Arteko jaietako kartela.

### ARRATIA

## Auzoetako jaiak



Hogei ekintza baino gehiago dagoz urri lehenengoko lehenengo hamabostaldiko auzuneetako jaietako egitarauetan. Sandoniak ospatuko dabez Oban (Dima) eta Lemoatxan (Lemoa); Mendietan (Lemoa) auzoko jaiak eta andramariak Elizondan (Lemoa) be ospatuko dira.

Auto Slaloma, antzerkia, erromeriak, lehiaketa gastronomikoak eta beste ekitaldi asko egongo dira auzune honeetan. **7. orrialdea**

### ARRATIA


## Basoko zugatz erraldoi arrotzak

Alvaro Rabellik gure basoetako zugatz exotiko erraldioen gaineko erreportaje interesgarria dakarku erdiko orrialdeetara. "Gure gogoaren mundu sinbolikoan baso zaharrek haretx eta pago ederrak ondino dirauen bitartean, gure basorik handienak aspaldi birlandatu ziran zugatz arrotzak" dino eta zeintzuk diran eta non dagozan be azaltzen dau Rabellik. Zugatzok jatorriz arrotzak izan arren, arratiartu egin dira eta funtzino ekologikoa eta ludikoa beteten dabe gure basoetan. **8. eta 9. orrialdeak**

### AREATZA

## Presoen eskubideen aldeko ekintzak bertan behera jaietan

Carlos Urkijo Espainiako Gobernuako ordezkariak eskatuta, Bilboko 6. Administrazio Epaitegiak, Areatzako jaietako presoen eskubideen aldeko txokolate jatea debekatu eban. Hori dala eta, Udalak bertan behera itxi eban txokolate jana, eta bazkarirako eta alkarretartzeko baimenak, jaietan "parte hartzea, normaltasuna eta harmonia" mantenduteko. **5. orrialdea**



- Cambridge / EOI (ESOL - IELTS) Azterketa ofizialetarako prestakuntza
- Maila guztiak, umeak 4 urtetik aurrera
- Mintzapraktikan arreta berezia
- Ingeles irakasle natiboa, 15 urtetik gorako esperientzia
- Klaseak enpresetan
- Ordutegi malgua (zapatuak barne)
- Talde txikiak

Urrian zabalik

Apunta zaituzte!

INFORMAZINO GEHIAGO

BARRY - AGATE 665 289 259  
erinnigorre@gmail.com  
f Erinn Igorre

Olabarri, 17 (Polikiroldegia ondoan)  
48140 IGORRE

## ARRATIA ZURI-BALTZEAN

## SANTOS LOPEZ DE LETONA (I)


Inbersino eta negozio handiak egin ebezan lehenengo enpresaburu dirudunak eta kapitalismo industrial eta finantziarioaren urteak parean doaz XIX. gizaldiaren azken hamarkadetan. Orduko denporakoa da Arratian jaiotako enpresaburu aurrendari hau: Santos Lopez de Letona Apoita, Zeanurin jaioa 1842an. Santos, bost neba-arreben (hiru mutil eta neska bi) artean, bigarrena izan zan. Aita, Dámaso Lopez de Letona eta Fernandez de Agirre arabarra zan eta ama, Concepción Apoita Ajuria, Ubiden jaioa, bere ama Melxora bertakoa zalako, eta bere aita, Jose Apoita, barriz, Zeanurikoa, Arrikibar (Alkibar) auzoan egoan etxekoa, hain zuzen be.

Mexikon egin eban fortuna

aberats handi honek. Merkataritza arloan sartu zan hasiera baten, La América izeneko almatzen edo denda erropea eta ehunak saltzean. Ateratako diruak ehungintzako industrian inbertidu zituan, S. Letona y Cía enpresea sortuz 1888an, baita fabrika bi honeek be: La Concepción (bere amaren izena), Puebla estaduan, eta 1883an La Josefina (bere alaba nagusiaren izena), Tlaxcalan. Josefa Gómez de Rueda Fuente mexikarragaz (1855-1925) ezkondu zan. Euren seme nagusiak, Santos eta Emiliano, izan ziran dendeagaz jarraitu ebenak, eta urte batzuk beranduago handiagoa bihurtu eben.

Santos aita Bizkaira etorri zan bueltan 1888an. Indiano bat izan

zan, beraz. Bilboko Abando auzo barrian sortu zan Zabalgune (edo Ensanche-an) bizi izan zan bere andra eta familiagaz. Diru asko inbertidu eban negozioetan. Kasu bi ditugu, adibide gisa: 1897an Banco de Comercio bankuan, geroago, 1901ean Banco de Bilbao (gaur egun BBVA-ren lehen bankua) dalakoagaz batu zan, eta banku bietan aginte handiko karguak okupau zituan; eta Zabalgunean bertan, Kale Nagusiaren (edo Gran Vía) inguruan, burgesen etxe dotoreen eraikuntza bultzatu eban. Diru gehiena baina trenbideetan, oihalgintzaren industrian, meatzaritzan, eraikuntzan eta industria elektrikoan erabili eban 1890 eta 1903 urteen artean. Bilbao-Balmaseda-La Robla trenbidearen proiektuan egon zan sartuta. Oso garrantzitsua zan La Robla (Leon probintzia) inguruko ikatzaren garraioa Bizkaiko industria siderurgikoa horniduteko. Meatzaritzan, Palentziako La Constancia, Mexikon, Puebla estatuan egoan



Santos Lopez de Letona.

ehungintzako fabrika baten izena hartuz, kobrezko meak be martxan

ipinten ibili zan.

Angel Larrea Beobide

## TELEFONO INTERESGARRIAK

## Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

## Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

## Abuztuaren 31tik urri lehen. 6ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

## Urri lehenengoaren 7tik 13ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

## Urri lehenengoaren 14tik 20ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

## Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

## Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

## Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

## Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

## Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

## Parketxea

94 673 92 79

## Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

## Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

## Trenak

Euskotren 902 543 210

## Bizkaibus\* 902 222 265

## Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

## Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

## Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

## Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

## Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

## Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Artea-Zeberio-Arrigorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

## Zeberio-Arrigorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

## Arrigorriaga-Zeberio-Artea

Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Arrigorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

## La Union\* 94 427 11 11

## Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

## Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

## Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:  
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Karrakaldoa



Karrakaldoa gorputz lodi eta hanka laburreko insekta da. Karrakaldo (karrakáldoa, agoskatuta), karraskaldo, kakarraldo, kakamarro eta marakarro dira Arratia inguruan jasotako berbak. Batuaz, kakalardo da. Karrakaldoak ez dauenez ondo ikusten, ikusi ordez "bran-bran" zaratea egiten dau hegalakaz. Karrakaldoen espezien artean, adardun hegazlaria edo infemuko adarduna be sano ezaguna da, bere adar handiakaitik: udako iluntzeetan hegaz ibiltzen diran karrakaldo adardunak dira.

## ERETXIA

### Ez nahastu

**A**zken aldian eguneroko barria da, milaka persona Siriako gerratik igesean Mazedoniatik Europara sartzean ahalegintzen dirala eta milaka be badira pateretan itsasoa zeharkatzen ahalegintzen diranak, askok bizia galduta bidean.

Historia errepa-setan badogu, beti eta errazoi desbardinakaitik egon dira korrente migratorioak. Etorkizun hobe baten bila beti mobidu izan dira ekonomiak bultzatutako emigratzaileak, hola industrializazio garairarte munduko leku askotara urten izan dira euskaldunak eta leku askotatik etorri izan dira Euskal Herrira be.

Gerrak migrazinoa eragiten dau. Euren bizitza edo euren familiarena arriskuan dagoalako mobiduten dira emigratzaile politikoak. Munduko hegemonia euki gura daben estadiak, -Ameriketako Estatu Batuak, Alemaniak, Frantziak...- ez dabe onartuten beste estadien subirotasuna eta komeni ez jakien ebatziak hartzean badabez, gerra sortuarazoten dabe edo zuzenean inbaditzen ditue. Siria eta Ukraina adibide.

Enpresa multinazionalak migrazinoa proboketan dabe, baliabide naturalak esplotetako (ura, mineralak, harri bitxiak) herriak eza-batu eta herritarrak kanporatzen ditue, bertako estadiak lagunduta. Iberdrolak Chilek lagunduta, maputxeak egin dauana gogoratu behar da.

Estadu batzuek be edozein lurralde okupetako, menperatzeko eta esplotetako eskubidea daukiela sinistuta, herrialde batzuk hartu egiten dabe indarkeria tarte eta kolonoak eta ejerzitoak mobiduten dabez: Sahara eta Palestina adibide.

Kapitalismoaren arpegiak dira, konsumismoa da oinarria eta esplotazinoa eta desbardinatasuna atzenengo emoitza. Egoera horreetan dagozan personak Europara jotea, hau da, euren bizimodu eskasa sortu daben



### SORAYA LIZUNDIA

Erizaina

herrialdeetara jotea bidezkoa da.

Lagun bategaz berbetan nengoala barriro entzun genduan milaka persona harresia pasetako ahaleginetan dabizala tirokatuak izan dirala. Ezin dogu hola jarraitu ikusle hutsak moduan, "zer-bait egin behar dogu, hau ez da konponduten hesiak eregiz eta tiroak boteaz, hareen herrialdeak esplotau eta gero gerrea elikatzen daben estadi berberak egiten daben moduan", esaten genduan. Baina zer egin geinke guk herritarrok hain interes potenteak bultzatutako konflikto honeek ebitetako?

Komunikabideak aurkezten deuskue egoera hau, guretzako arriskutsu moduan, baina 80ko hamarkadan Aurora Bilbaok, gerra nuklearraren prebenzinorako mediku alkatetakoak, zera esan eban: "ez daiguzan engainau geure buruak, munduan ez da egongo bizi maila bardina herri aberastutako biztanleok geure bizimaila eta geure konsumo maila mantentidu bitartean". Ordurik hona konsumo maila mantentidu ez eze, biderkatu be egin dogu.

Pentsau dogu inoz 3 eurotako kamisetak erosteak, edo urte birik behin sakeleko telefonoa aldatzeak, edo gabonetan kerezak jateak zer suposatzen deuten naturari, gizarteari eta munduko ordenazinoari?

Podere ekonomikoak eta faxismoak mobiduten dabez antolakuntza mundialaren hariak, oso elementu indartsuak dira. Gure betebeharra etsaia identifiketea da eta aukera oso baliagarriak daukaguz, konsumismo gorpil horretatik aterate, herrialde horreetako biztanleen azalean jartzea, eta garrantzitsuena, zera pentsatzea: hareek poderetsuak dira baina gu asko gara eta errozoia daukagu.

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...  
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Eusko Legebiltzaria  
MONDRAGON

## LUMATUTEN



## IRATXE ETXEBARRIA

## Exodus

**E**torkina izan naz, baina beti primerakoa. Hegazkinez bidaiatu dot eta mugak zeharkatzerakoan ez dot inoz arazorik izan. Europar Batasuneko, edo hobe esan, muga bako Europako uritarra nazalako. Zure moduan. Etorkina izan nazan guztietan, ez naz inoz errefujiaua izan. Baten baino gehiagotan egin dodaz maletak, familia eta lagunakandik milaka kilometrotara biziten joateko. Gustura joan izan banaz be, ezin ezkutau, tripetan beti zurrunbiloa sentidu dodala. Guraso eta nebak agurtzerakoan lehenengo, hegazkina hartzerakoan gero, uri barrira heldu eta hasteak dakarren bertigoa sentiduterakoan ondoren.

NYT egunkariaren Europako edizinoak, egunero dakar errefujiauen exodoa deitu dabenaren argazki bat. Nazinoartean daukan eraginaz baliatzen da benetako garrantzirik emoten ez jakon arazo bateri oihartzuna emoteko. Urtailetik hona Mediterraneo itsasoa zeharkatu dabenak 300.000 izan dira, Gasteizen

bizi diran biztanle guztiak baino gehiago. Europa amets bidean ito diranak 3.000, gitxi gorabehera Lemoako biztanleak beste. Ehuneko 1, hotzean pentsau ezker ez da asko. Horregaitik agian, oraindino be horixe da gehienak aukeratuten daben bidea. Greziara heltzean dira gehienak, orain arte Siziliara heltzean ziran puztutako itsasoentzien irudiak izan badira be gehien ikusi doguzanak. Atenaseko parke batzuetan, mutil gazte kuadrilak egonean ikusterakoan, Sirian nagoala sentidu dot.

Abuztuan bakarrik, maleta batean itota marokoko 27 urteko gazte bat hil da, Hungariara bidean joian kamioi baten dozenaka lagun hilda topau ditue, Libiatik atera zan txalupa bat hondoratu ostean ehunka hil dira, desagertutakoak zenbatu be ez dira egiten...

ACNUR, Nazino Batuen errefujiauen agentziako datuen arabera, Greziara ailegau diran 10etik zortzi, gerra edo gatazka batetik igesi ailegau dira. Europara datozen papelik bakoeh ehuneko 40 Siriatik dator. Ehuneko 12 Afganistandik, ehuneko 11 Eritreatik, ehuneko 4 Somaliatik... danak be gatazka edo gerra zibilak dituen herrialdeak dira.

Askotan pentsetan da, errazoi ekonomikoakaitik hartzean dabela bide arriskutsu hori. Hori ez da holan. Gehienak, hegazkin txartela pagetako dirua badaukie. Baina Mediterraneo zeharkatu edo Melillako hesia igarotea baino zailagoa da Europar Batasunak ipinten dituan oztopo administratiboak gainditzea.

## ZERTZEAN



## IKER YURREBASO

**H**au ez da ipuin bat, deialdi bat baizik. Jean Giono Frantziako XX. mendeko idazle handienetako bat izan zen. Berak idatzi zuen "Zuhaitzak landatzen zituen gizona" kontakizun ederra. Hau suntsipenaren aurkako mezua da, ama-lurra zaintzeko deialdi sutsua. Ez baduzu oraindik irakurri hartu denbora ipuin labur honetaz gozatzeko, ez zaizu damutuko.

Denbora erlojuen menpe utzi genuenetik preso gara, ni neu ere sarri amorratzen naiz presaren giltzarraoan sentitzen naizenean. Zaude ziur ez dela beti horrela izan, esan nahi dut gizakia ez dela inoiz historian zehar naturaren zikloetatik hainbeste aldendu.

Gure agintariak esaten dute herria bla bla bla... Eskaintzen digutena jasagarria dela sinetsita daude behar bada. Eskuinekoek hazkunde etengabea eta lehian oinarritu dute ekonomiaren motorra, eta ezkerrekoak ez dira gai masa kritiko nahikoa mobilizatzeko eredu berri, baliagari eta sinesgari baten inguruan. Ez gara gai askatasunez bizitzeko, badiudi erosoagoa dela belauniko ibiltzea, menpeko.

Zuhaitzak landatzea inolako berekoikeria barik, eskuzabal-tasun mugagabeaz, sariak jasotzeko irrika barik, hori da kontzientzia askea. Lurraren jabetza ere ez pentsa, ez da oso aspaldiko kontua. Lur zati bat baldin badaukazu zer landatu esango dizute: landatu pinua, landatu eukalipto... Esango

dizute dirua bla bla bla... Ni neu ere sarri etsitzen naiz lanaren eta soldataren amaraunean erortzen naizenean.

Artzainak bere burdinazko makila lurrean iltzatu eta zabalduzuloan ezker bat sartu du; ondoren zuloa estali du. Haritzak landatzen ditu. Lurra berea den galde-tu diot. Ezetz erantzun dit. Badakizu norena den? Ezetz. Lur komunala izango dela agian, edo behar bada jabeak izango dituela. Ez dauka inongo interesik jabeak ezagutzeko. Ehun ezker landatu ditu, mimo handiz.

Jarduera isil eta eraginkor honen antzeko esperientziak ezagutzeko aukera dago urriaren 24an Bilbon, Alternatiben Herrian. Egunean zehar Bilboko erdigunea herri txiki bihurtuko da, hausnarketaz, alternatiba praktikoz eta baikortasunez beteko da. Gune bakoitzean martxan dauden alternatibak ezagutaraziko dira: ekonomia ereduak, ondare komuna, aniztasuna, demokrazia, subiranotasuna eta parte hartzea, natura eta bizitzaren iraunkortasuna... Bizitza burujabea eskubide osoz da mobilizazio honen lema.

Han, Alternatiben Herrian, basogintzaz hitz egin, entzun edota hausnartzeko aukera ere egongo da: espezie zahar eta berriak, ustiaketa eredu desberdinak, ekimen partikular eta publikoak... Nahi izanez gero elkar ikusiko dugu han. Bitartean jarraitu haritz ezkurak eriten, eskubide osoz eta mimo handiz.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredu ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**M**ary Poppins pelikulan, Mary Poppins eta Bert tximinia-garbitzaileak Jane eta Michael Banks umeak Londoneko teilatuetatik ibilaldira egin ebenetik, badakigu teilatuetatik ibiltzea dibertigarria dala eta herriaren gaineko bestelako ikuspuntu bat izateko balio daua. Informazio asko emoten dabe teilatuetakoa bistak. Horregaitik akaso, baten batek igarriko eban hemengo teilatu honeek Guadalupe (Caceres) herriko teilatuak dirala. Guadalupe herri txikia da, baina bertako monastegia Extremadurako sinbolik handienetakotzat jotzen da. Argazkia Zeberioako Jasone Aldekoak atera dau gure Argazki Lehiaketan parte hartzeako. Zorte on, Jasone!

Lehiaketan parte hartzeako argazkiak hilaren 25era arte bialdu daitezke begitu@topagunea.com helbidera. Irabazleak landetxe baten persona birentzako gau bi izango ditu sarizat. Holan, opor txikiak lakoxeak izango ditu aurrerago eta beste paisaje eder batzuk disfrutatuko (eta argazkiak aterateko) aukerea.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

Zugaitik BEGITUten dogu  
A.P.I. 495  
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

24h  
EGUNEKO OGIA  
vending pan  
IGORRE  
Lehendakari Agirre



## IGORRE

## Suzko zezena AME Egunean

## Erredakzioa

Arratiako Merkatarien Elkartek, AME, bere eguna ospatuko dau urri lehenengoaren 12an, Igorreko Kultur Etxeko plazara (euria egiten badau eskoletako aterpera) hurrez ratzen diran guztiakaz. Horretarako, beste gauza batzuen artean, suzko zezenaren entzierroa ikusteko aukerea egongo da. Egun honen helburua, herriko komertzioa bultzatzea da eta merkataria eta bezeroen arteko hartu-emonak sendotzea.

Ume zein nagusiengan pentsatuko egitaraua izango dau AME Egunak. Goizean umeentzako puzgarriak, arrastian tailerrak eta goiz eta arrastiz txu-txu trena anto-

latu dabe merkataria umeen gozamenerako. Gainera, La Pacheca txarangeak alaituko dau giroa eta iluntzean, suzko zezena ikusi eta pintxoak jateko aukerea eukiko dabe hurreratzin diranak.

## Urri lehenengoak 12, zapatua

11:00etan, puzgarriak.

11:00etatik 14:30ak arte eta 17:00etatik 19:30ak arte, txu-txu trena.

12:00etatik 14:30era eta 18:30etik aurrera La Pacheca txarangea.

17:00etatik 19:00etara umeentzako tailerrak.

20:00etan, pintxoak eta suzko zezena.

## ARTEA

## Azokea, musikea eta zetreria MerkArtean

## Erredakzioa

Urri lehenengoaren 19an izango da aurten MerkArtea. Arteko artisautza eta nekazaritza azokeak, 22 urte beteten dauz eta betiko lez, azoka bat baino gehiago, egun osoko jaia izango da. Goizean azokeak berak hartuko da protagonismoa eta arrastian musikeak. Eguerdian, 13:00etan, zetreria erakustaldia egongo da Ekomuseo ondoko landan.

Azokea dagoan bitartean, umeak egurragaz olgetan ibilteko aukerea izango dabe plazan, Zuresku Eguerezko Jolas Tradizionalen alkartaren eskutik. Eguerdian, 12:00etan, Gibelurdinek taldeak musikea ipiniko dau, Maurizia, Leon eta Fasio erraldioen laguntzeagaz. Iluntzean Eñaut Elorrietaren kontzertua plazan eta gaubean, Garilak 26 Bilboko taldeagaz erromeria eta DJ Festa, ordu txikiak arte jantzan egin ahal izateko.



## ARRATIA

## Beldur Barik Lehiaketan lanak aurkezteko epea zabalik oraingo hilean

## Erredakzioa



Urri lehenengoaren 11tik zementiaren 11ra arte, Beldur Barik Lehiaketan parte hartzeako, ikusentzunezko lanak bialdu daitezke [jarrera@beldurbarik.org](mailto:jarrera@beldurbarik.org) helbidera.

Aurten laugarrenez Arratiako Mankomunitadeko Bardintasun Zerbitzuak Beldur Barik Lehiaketa antolatu dau Arratian. Lehiaketa hau bikotxa da, alde batetik globala, EAE mailan antolatutena, eta bestetik, Arratiako lehiaketa.

Helburua andrakanako indarkeria prebenidutea da, bere adierazpide guztietan, beren-beregi neska gazteak jasaten daben indarkeria. Horretarako mutilakaz jarkera sexistai aurre egiteko neurriak landuko dira, eta neskai, behar diran tresna eta baliabideak emongo jakiez.

Ikusentzunezkoak, gehienez 5 minutuko iraupena izan behar dabe eta kategoria bi dagoz: 12 eta 17 urte bitartekoa, eta 18 eta 26 urte bitartekoa. Arratian kategoria bakoitzean 300 euroko saria egongo da. Lanok errespetuan, bardintasunean, askatasunean, autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeriaren kontrako konpromiso sendoan oinarritutako jarkerak ikustarazoz behar dabez.

## Igazko irabazleak

Igazko Arratiako Beldur Barik Lehiaketako lehenengo kategoriako irabazlea izan zan Igorreko talde batek egindako *Gura doten moduan, gura dotenagaz* izeneko lana. Bigarren kategoriako saria, bariz, Bediara joan zan eta *Apur ditzagun mugak* bideoaren egileentzat izan zan.



## ARRATIA

## Papela ala liburu elektronikoa

## Erredakzioa

Autobus eta trenetan ondino batzuek papelezko liburuak irakurten daben arren, gero eta gitxiago dira. Irakurtea inoz ez da izan, telebista ikustea bezain ekintza masiboa, baina internetek ekarritako aisialdirako ohitura aldaketak be izan dabe eragina. Hori dala eta, BEGITU jakin gura izan dogu, gure irakurleak ea eusten deustien

entretinenturako irakurteari eta zein formatotan egiten daben hori.

Hauxe da itauna:

Uda honetan entretenimentu libururik irakurri dozu?

- Bai, hainbat liburu irakurri dodaz. Formato klasikoan irakurri be, papelean.
- Nobela batzuk irakurri dodaz liburu elektronikoa.
- Ez, ez dot entretenimentuko libururik irakurri.

## Herriko jaietan eta ingurukoetan

Aurreko inkestan itaundu geuntsen irakurleai ea herriko jaietan herrian egongo ziran ala kanpoan. Kanpoan, baka-

rik erantzun daben %17 inguru egongo dira. Herrian egongo diranen erdiak, ez bakarrik euren herriko jaietan, inguruko jaietan be ibilteko asmoa agertu dabe.



## Udarako BEGITUREN kamiseta barriak salgai

10 eurotan, Begitu-lagunak 8 euro

Bialdu mezua [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera neurria adierazoz



## ARRATIA

# Baba Lehiaketea Lemoatxan, txitxi-burruntzia Oban



Argazkia: Dima Berriak.

### Erredakzinoa

Urri lehenengoaren lehenengo hamabostaldi honetan ez da jai-giroa faltauko ermita inguruetan. Izan be, hilaren 2an San Antolin eguna ospatuten dabe lemoaz-tarrak Lemoatxako San Antolin ermita inguruan, Baba Lehiaketea eta erromeriagaz. Eta Dimako Oba auzunean Obakoak hiru eguneko jai egitaraua prestatu dabe.

Mendietako jaiak (Lemoa) hilaren 5ean ospatuko dabez; Elizondokoak, barriz, Andra Mari egunean, hilaren 8an.

### Sainduniak Oba (Dima)

#### Urri lehenengoak 2, eguazte-na

11:30ean, mezea.

12:00etan, trikipoteoa.

Sormen arrastia.

18:00etan, neure markako kami-setea.

19:00etan, txokolatea.

#### Urri lehenengoak 5, zapatua

11:00etan, bizikleta igoera.

12:00etan, eskulenen erakusketea.

13:00etan, poteoa.

19:30ean, antzerkia *Brillantinea* antzezlan.

20:30ean, txitxi-burruntzia.

21:00etan, Bola Txapelketak.

#### Urri lehenengoak 6, domekea

12:00etan, krosa Dima-Oba.

13:00etan, poteoa.

14:30ean, auzo bazkaria.

18:00etan, Briska eta Igel Txapelketak.

#### San Antolin jaiak Lemoatx (Lemoa)

#### Urri lehenengoak 2, eguazte-na

12:00etan mezea San Antolinen. Ondoren, barauskarria.

14:00etan, Baba Lehiaketea. Lapikoen aurkezpena.

17:00etan erromeria Jokaldigaz. Udalak autobus zerbitzua ipiniko dau San antolinera igoteko eta jeisteko.

#### Mendietako jaiak (Lemoa)

#### Urri lehenengoak 5, zapatua

14:00etan Auto Slalom-a eta ondoren sardina jana.

#### Andra Mari jaiak Elizondo (Lemoa)

#### Urri lehenengoak 8, martitze-na

12:30ean meza nagusia Andra Mari eleizan.

17:00etan, haurrentzako jolas eta tailerrak Zastaparrak taldeak antolatuta Elizondon.

20:00etan, Uribeko Zeani Antzerki taldeak 37 *bentanea*, 38 *pasilloa* antzezlan antzektuko dau Elizondon.

## ARTEA

# Jaiak parekideak izateko helburuagaz, aldaketak eskatu ditu Jai Batzordeak

### Erredakzinoa

Herriko jaietarako sei eguneko jai egitaraua prestatu dau aurten Arteako Jai Batzordeak. "Parekide-tasunean jai lemapean ospatuko dira aurten Arteako jaiak, urri lehenengoaren 8tik, 13ra. Helburua jaien gozamenerako danok, andra zein gizon, neska zein mutil, aukera bardintasunean aurrera pausuak emotea da. Hau lortzeako danon parte hartzea beharrezkoa izanik, pentsakera, jokabide eta praktika batzuen berrikusketea eta aldaketea dakarkuz, plazan zein etxeetan" dinoe Jai Batzordekoak. Eta jaiak euskeraz biziteko konpromisoa be ekarri dabe gogora. "Ez dago sobran akorda arazotea euskereari asko gustetan jakola jai giroa eta beragaz daukagun konpromisoari helduta... ondo pasau Arteako jaiak".

#### Urri lehenengoak 8, martitze-na

11:30ean, mezea.

12:30ean, mariatiak plazan.

18:30ean, txupina udaletxean eta kalejirea buruhandiakaz.

19:00etan, Gau alai taldeagaz erromeria.

#### Urri lehenengoak 9, eguazte-na

17:30etik 19:30era, umeen txokoak plazan.

#### Urri lehenengoak 10, eguena

18:00etatik 21:00etara, zunba-toia plazan.

#### Urri lehenengoak 11, barikua

18:00etan, umeentzako antzerkia frontoian. *Kondaira baten truke* antzezlan.

20:00etan, txarri jana plazan.



Igazko momentu bat Arteako jaietan.

21:00etan, umeen Play-back Lehiaketea.

21:30etik 23:30era, Rockalean elektrotxarangea herritik zehar.

24:00etan, Luhartz taldeagaz erromeria.

01:00etan, nagusien Play-back Lehiaketea.

04:00etan, DJ Festa.

#### Urri lehenengoak 12, zapatua

11:00etatik 14:00etara, umeen parkea frontoian.

12:00etan, kalejirea Arratiako Musika Eskolearen eskutik.

14:00etan, Tortilla Txapelketak. Aurkezpena. Plazan.

Ondoren, herri bazkaria.

17:00etan, Kuadrilen Olinpiadak plazan.

19:00etan, antzerkia frontoian. *Desentxufatuak* antzezlan.

23:00etan, Arcada Social taldearen kontzertua. Ondoren erromeria Oxabi taldeagaz eta DJ Festa.

Mozorro gaua. Mozorroen gaia: pelikulak.

#### Urri lehenengoak 13, domekea

12:00etan, pala partidua frontoian.

13:30ean, Arteako umeen euskal jantza taldea plazan.

16:00etan, nagusientzako Mus eta Briska Txapelketak. Umeentzako mahai jolasak. Plazan.

19:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz.

21:00etan, txokolatea plazan.

## AREATZA

# Astondoa Pirotekniako beharginak soldatak kobrau barik dagozala salatu dau CCOOK

### Erredakzinoa

CCOO sindikatuak Areatzako Astondoa Pirotekniako beharginen egoera salatu dau.

Enpresek sei hilabeteko soldatak zor deutse beharginai eta sindikatuak salaketea ipini eban Lan Ikuskaritzan. Honek enpresei zorra kentzeako eskatu deutso, ezpabere zigor prozedura administratiboa abian ipiniko

dauala esanez.

Sindikatuaren arabera, beharginak urte bi daroz modu irregularrean kobretan. CCOO sindikatuak soldatak ordaintzeko eta "beharginen etorkizunagaz eta enpresearen kudeaketan" arduraz jokatueteo eskatzen deutso enpresa zuzendaritzeari, eta holan egin ezean, mobilizazioak egingo dituela iragarri dau.

Gora Andra Mariak!

BATZORDEA

Arteako Jai Batzordeak

JAI ZORIONTSUAK

OPA DEUTSUEZ

ASESORIA

Gorbeialde

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza

Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82

E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

agoa

Ortodontzia

Inplanteak

Estetika

hugin klinika

Marina Urigoitia Aldekoa

Odonologia

Bidebarri 1, behea

48140 Igome-Bizkaia

T. 94 631 50 39

Kalejira Zirkulari 100

R.P.S. 21/06

## ARRATIAKO BASOA

# Arratiako basoko erraldoi arrotzak

Horreetako batzuek gure artean mende bat baino gehiago eroan arren, ondino mesfidantzaz begiratuten deutsegu gure basora etorri diran zugatz exotiko arrotzai.

Alvaro Rabelli

**Mundu sinbolikoko basoa**

Basoak oroimena gordetan ei dabe, eta, beraz, Arratiako historia gure basoak be idatzi leikie. Eurak izan dira lekuko nagusiak gizakiak inguruari eragindako eraldaketa bortitzaz, eta batzuetan zentzubakoaz. Eurek ikusi dabe jatorrizko basoa ustiatzen, ia erabat desagertzeraino galtzean, eta espezie etorri barriai lekua egiten.

Bada, gure gogoaren mundu sinbolikoan baso zaharreko haretx eta pago ederrak ondino dirauen bitartean, gure basorik handienak aspaldi birlandatu ziran zugatz arrotzakaz agertzen dira gaur, konifera exotikoakaz gehien-ge-

hienetan. Eta askooi ez jakuz gusetan, motzak deritxegu, ez ei dira ekologikoak, geure jatorrizko baso ederra gurago geunke, jakina. Baina zugatzak personak lakoxeak dira, etorkinak izan arren, atzanean gitxi asko bertakotzen dira, kasu honetan arratiartu egiten dira. Eta guretzat aberastasuna dira. Sano geureganatuta daukagu basoaren funtzino ekologikoa eta ludikoa gure betiko zugatzakaz bete behar dala, eta, ostera, us-tiapien industrialia espezie arrotz jakin batzukaz egiten dala. Akats handia izan daiteke ikuspuntu hori, alde bietatik gainera, batzuek zein besteak funtzino berberak bete leikiezalako. Konponbidea badakigu zein dan, kudeaketa on



Lawson altzifre usaintsuak.



Alertze ilaunak.

**E P A**  
Galdakao

www.epagaldakao.com

Matrikuletako epea,  
Iraila osoa.

Tifn. 94 456 60 98  
Helduen heziketa

E.P.A.  
IGORRE: Elexalde 22. Eleizako lokaletan

baten oreka, batzuen eta besteen artekoa, funtzinoen artekoa be bai; Arratian, argi eta garbi, espezie arrotzen aldeko desoreka dana, gaur gaurkoz behinik behin.

**Zugatza ikusten ixten ez deuskun basoa**

Arratiako baso barriaren lehenengo pausua Bedian hasi zan, 1897an. Orduan egin zan radiata (*Pinus insignis*) pinuaren landaketa handia Mario Adan de Yarza agronomoaren eskutik. Kaliforniako (Monterrey) zan pinu

hori sasoi haretako mendi soilduak birlandatzen eta industria barriari (zelulosa eta enbalaketak) hazkunde arineko egur merkea eskeitzen etorran. Harrezkero radiata pinuaren landaketak dira gurean gehien zabaldu diranak, batez be 50eko hamarkadatik hona. Bigarren pausua Bizkaiko Diputazioak emon eban Barazarreko mendietan (Zubizabal, Lapurriketa, Saldropo...) 20ko hamarkadan, herrialdeko basoak birlandatzeko ardurea hartu ebanean. Bertan, espezie batzuetako



Zeanuriko txabolak izei gorritik zintzilik.

Zugatzak personak lakoxeak dira, etorkinak izan arren, atzanean gitxi asko bertakotzen dira



zugatzak barrutietan landatu ziran euren garapena eta balizko ateramentua ikusteko. Landaketa esperimental horrekeek dira, hain zuzen, Zeanuriko Zubizabal baso ibilbidean gaur egun ikusi daitezkeanak. 1956ko edurteak, baina, Bizkaia eta Gipuzkoako radiata pinuaren landaketak asko kaltetu ei ebazan, eta orduantxe agerian gelditu zan mendi garaietarako beste espezie batzuk egokiagoak izango zirala. Beraz, ordura arte esperimentalak baino ez ziran espeziak mendi gune altuetan ugaritzen hasi ziran. Horregaitik, Arratian bertan bada alde nabarmena, 500-400 metrotik beheragoko mendietan radiata pinua da nagusi-nagusi, eukaliptu zuri (*Globulus*) apur bategaz; ostera, maila horretatik gora espezie diferente eta ugariago ikusten dira, hein handi baten aitatu dogun esperimentazioari esker. Holan, gune garai horreetan Japoniako alertzea (*Larix kaempheri*), Douglas izeia (*Pseudotsuga menziessi*), izei gorria (*Picea abies*), pinu larioa (*Pinus nigra*), estrobo pinua (*Pinus strobus*), Lawson altzifrea (*Chamaecyparis Lawsoniana*) eta haretz amerikarra (*Quercus rubra*) ikusi daitekeguz.

Batez be Gorbeia inguruko lur

garaietan aurkitzen diran zugatz horreke guztiak badaukiez euren berezitasunak. Sarritan osotzen dabezan baso sail monotontik harago, zugatzoi ez jakie edertasunik falta. Kontuan hartu behar dogu gehien-gehienak sano prezia duak dirala herrialde askotako loragintzan. Berezien artean alertzea aitatu geinke. Gurean dogun espeziea ez da Europakoa, Japoniakoa baino, eta konifera dan arren, hosto galkorak daukaz. Udagoienean bere hostajeak urre zaharraren kolorea hartzean dau eta oso baso interesgarriak osotzen dauz. Arratiatik kanpo, Gipuzkoako Aiako Harrietan baino ez da aurkitzen. Zabaldu ez dan espeziea da estrobo pinuarena, Zubizabalen sailtxo bat baino ez dago. Konifera hau Kanada eta Estatu Batuetako ipar-ekialdekoa da, bertan *White Pine* hartzean dau izena. Iroques nazino natiboaren zugatz sakratua da, "Tree of Great Peace" deritxoe. Herri horren banderan ikusi geinke, baita Michigan, Maine eta Ontarioko estadietako armarietan be. Amerikar natiboak jatekoa eta botika ugari lortzean eben zugatz honetatik. Amerikarra be bada Douglas izeia, Iparmendebaldeko kostaldekoa, gure



Haretz amerikarraren ale gaztea.



Laurizioak udagoienean.

Gurean dogun alertzea ez da Europakoa, Japoniakoa baino, eta konifera dan arren, hosto galkorak daukaz

erraldoirik handiena. Sekoia goriaren ondoan munduko zugatzik altuena. Izeia deitu arren, *tsuga* generokoa da. Gurean, zugatz tantai horreetatik zintzilikatu dira Zeanuriko kanpineko txabolak. Benetako izeia ez dan beste bat izei gorria da, *picea* generokoa da eta. Ipar eta sortaldeko European dauka jatorria, hau be erraldoia, egur ona dauka musika tresnak egiteko. Ipar European Gabonetako zugatza da. Asko zabaldu dana Lawson altzifrea da, Ipar Amerikako Oregon estadukoa da, ez da benetako altzifrea, horregaitik batzuetan "altzifre faltsua" esaten jako. Gurean baso trinko ilunak osotzen dauz, oso bereizgarria bere itxura

konikoagaitik eta darien *citronella* usain gozoari esker. Bere egurra guztiz prezia duak da etxeak, itsasontziak eta hegazkinak egiteko. Larioa edo pinu baltza, barriz, Korsika irlako mendietatik jatorku. Pinu baltzetako jatorrizko basoak badoguz Nafarroan, baina ez dira lario azpigerokoak. Aspaldion konifera hau radiata pinuaren alternatibea bihurtu da, batez be pobregoa eta idorra goak diran zoruetan. Eta hostozabalekoa dan bakarra haretz amerikarra da. Gurean ez dau baso handirik osotzen, han hementika ikusten da. Hazkunde motelagoa da, bere zura gogorra eta astuna da eta udagoienean hostaje gori ikusgarriaz jantzen da.

**ZEKUTZE**  
JATEYXEA

Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
zekutzejateyxea@hotmail.com

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOSERBITZU**

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**GARANTXE**  
Autoeskola

TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN ERDARAZ

Baimonak: A1, A, B1, B

Lehendakari Agirre 31  
Telefono: 94 613 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@euskalnet.net

**Beer & Edariak s.l.**

HEINEKEN SOLARES

Polig. Mendaketa, n.º 3. 48550 IZEMOIA, Bizkaia  
Tel: 000 481 839 000 / 009 200 717

**Igorren**  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

# euskarak batzen gaitu

EL EUSKERA  
NOS UNE

**UDAL  
EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak



**15/16 IKASTURTEA**

**IZENA EMATEKO EPEA IRAILAREN 1ETIK 25RA**

## EUSKALDUNTZE IKASTAROAK

Astelehenetik ostegunera: egunean 2, 30 ordu

### Ordutegiak

9:30-12:00 14:00-16:30 16:30-19:00 19:00-21:30

H.E. prestatzeko ikastaroak, oposaketak...  
2 egun astean, egunean 2,30 ordu

## TRINKOAK

Egunean 4 edo 5 ordukoak HABEren mailak, EGA, Hizkuntza Eskakizunak

## AUTOIKASKUNTZA

Multimedia gela eta ikus-entzunezko baliabideak  
On-line ikastaroak

**TALDE BEREZIAK:** merkatariak, gurasoak, etorkinak, nagusiak, ume-zaintzaileak  
**BALDINTZA EKONOMIKO BEREZIAK IZANGO DITUZTE**

## DESKONTUAK ETA BEKAK

Irailaren 1go hamabostaldian matrikulatuz gero, %20ko deskontua  
Ikasturteko asistentzia %90ekoa izanez gero, matrikularen %50 berreskuratzen da

2015/16 ikasturteko matrikula-ordutegia

Goizez: 10:00-13:30  
Arratsaldez: 16:00-19:00

# INBIU EGUNA 2015

## IRAILAREN 19an

[www.ame.eus](http://www.ame.eus)

#igorrenerosi

Jarrai gaitzazu



# JOKALDI



18:30etan  
KULTUR ETXEAN (IGORRE)



¡COMPROMISO CON LAS PERSONAS!

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# ALKIZABAL

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)  
[alkizabal@alkizabal.net](mailto:alkizabal@alkizabal.net)

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

**BOLUNBURU POLIGONOA**

Amorebieta-Lemoa bidea

Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26

48330 Lemoa (Bizkaia)



**KÄRCHER**

Banatzaile  
ofiziala



· Zuk behar duzuna  
daukagu, galdetu  
konpromiso gabe.  
· Garraio zerbitzua.



**BILBOTIK DURANGO  
ETA ARRATIARAKO  
TRANBIA  
ELEKTRIKOA.  
50 URTE ARRATIAKO  
TRANBIA BARIK**


BABESLEA



ANTOLATZALEA



LAGUNTZALEAK



## ERAKUSKETEAREN AREATZAN URRI LEHENENGOAREN 18tik 27ra


Astelehenetik barikura 17:00etatik 19:30era  
Zapatu eta domeketan 11:00etatik 13:00etara  
Inaugurazioa urri lehenengoaren 18an 19:30ean Ludotekan  
Ondoren berbaldia Jon Urutxurtu eta Juanjo Olaizola

# inbiu 2015

## euskal literaturaz gozatzeko eguna

### irailaren 19an

11:30 hasikerea  
kultur etxeko plazan  
12:00 ginkaneak herritik zehar  
13:30 poteoa  
15:00 herri bazkaria  
17:00 flash move-a  
18:30 jokaldigaz erronomia  
20:00 txokolata



hasikerea



**LIBURUTRUK.** Ekarri  
etxean daukazun liburu  
bat eta trukean beste bat  
eroango dozu.



**AMEko EGUNA 2015**  
www.ame.eus

## Irailaren 12an

IGORREN – KULTUR ETXEKO PLAZAN  
EURIA BADA ESKOLATAKO ATERPEAN



### PUZGARRIAK

11:00etan

### TXU-TXU TRENA

11:00etatik-14:30era  
17:00etatik-19:30era



### UMEENTZAKO TAILERRAK

17:00etatik-19:00etara

### TXARANGA "LA PACHECA"

12:00etatik-14:30etara  
18:30etik- .....



### SUZKO ZEZENA

### PINTXOAK

20:00etan

**DOBAN**

#igorrenerosi

Jarrai gaitzazu

¡COMPROMISO CON LAS PERSONAS!

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA  
LEHIAKORTASUN BAKIA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



ARGANZK-LEHIAKETE A





**V**

**Argazki lehiaketeta:**

bialdu zure argazkiak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
helbidera hilaren 25a baino lehenago.

Sari ederra eroan zeinke!!

## IBILALDIA

## Zeanuriko Ermiten Mendi Martxeak aurten kontrako norabidea izango dau

**Jon Urutxurtu**

Urri lehenengoaren 5ean, zapatuan, izango da Zeanuriko Ermiten Mendi Martxea. Aurtengoagaz hogeta zortzigarren urtea beteko dau 1988an jaiotako eta klasiko bihurtu dan oinezko martxa honek. Orduan antolatu eban lehenengo aldiz Joko Alai Elkarte mendi sailak eta hutsik egin barik eutsi deusie zeanuriztarrek urteroko ziteari. Orain dala hiru urtera arte ibilaldia domekan izaten bazan be, azken bi urteetan zapatara pasetea ebatzi eban antolatzaileak eta holan egingo da aurten be.

Urtekerea Ibarretako frontoian izango da, goizeko 07:30ean; aurten ibilbideak igazkoaren kontrako norabidea jarraituko dau, hau da, urtekeratik Eleizondo parrokiara zuzendu beharrean, plazako San Antonio eta San Isidro ermiten aurretik igaro otean, Uriberantza zuzenduko dira; amaierarako geratuko dira igaz hasieran egozan Andra Mari parrokia eta Piedadea ermita. Ibilbide osoa egiten dabena 35 bat kilometro beteko dabez eta hemeretzi ermita edota elei-

zaren ondotik igaroko dira, aurten be Egiriñako (Gorbeia) Edurretako Amarena kanpo geratuko da eta. Fisikoki prestatuta ez dagozanak edo ibilbide osoa egin gura ez dabena beste aukera bi izango dabez: bata, ibilbide ertaina, 23 kilometrokoa eta bestea, laburra, 13 kilometrokoa.

Umeentzat be ibilbide berezia prestatu da, 8,5 kilometrokoa, eta hau egiten dabenezat, urtekerea 09:00etan izango da.

**Zehaztasunak**

Izena emotea: Abuztuaren 31 baino lehenago, dirua sartuz BBK-ko kontu-zenbaki honetan: 2095 0335 29 3830586275. Nagusiak 8 euro, Joko-Alaiko bazkideak 4 eta 14 urtetik beherakoak, 4. Egun berean, 06:45etik aurrera, herriko plazan: Nagusiak 10 euro, Joko-Alaiko bazkideak, 4 eta 14 urtetik beherakoak: 5. Urtekerea, 07:30ean, Ibarreta frontoian.

Ibilbideak: luzea 35 km; ertaina 23 km; laburra 13 km eta umeena 8,5 km. Informazio gehiago 634 430 543 eta 669 156 500 telefonoetan.

## MENDIA

## Areatzako edurtegitira helduko da IV. Mendi Martxea

**Erredakzioa**

Urri lehenengoaren 9tik 12ra Areatzako Mendi Astea antolatu dabe Lamino Mendi Taldeak eta Areatzako Udalak. Astea, IV. Mendi Martxeagaz amaituko da eta aurten lehenengoz, martxearen ibilbidea edurtegitiraino (1065 m.) helduko da. Datorren urtean mendi martxea Areatzako punturik altuenera heltzea, Arranbeltzara, hain zuzen gura dabe Lamino Mendi Taldekoak. Argazki Lehiaketako sari banaketeak eta argazki erakusketeak, proiektzio bik eta mendi martxeak osotuten dabe egitaraua. Ekitaldi guztiak 19:30ean izango dira Udal Areatoan.

Urri lehenengoaren 9an, eguaztanean, II. AKKB Argazki Lehiaketako sari banaketea izango da eta parte hartzaile guztien argazkien erakusketea egongo da. Lehiaketako gaia ura da eta bertan laku, erreka, ur-jauzi eta abarren erretratuak egongo dira ikusgai.

Hurrengo egunean, Gorbeiak aterpetxea kudeatzen daben Yolanda Martin eta Joseba Elorrietak mendian bizi izan dabean abenturak kontauko dabez "25 urte, bi kordada" izeneko berbaldi-proiektzioaren bitartez. 25 urte honeetan Pirinioetan, Alpeetan, Himalayan, Everest-en eta beste mendi askotan izan dira aterpeko kudeatzaileak.

Barikuan, Txus Ruiz de Erenxunen eskutik, beste berbaldi-proiektzio bat: "Thule Beri 2015" izeneko. Bertan, mendizaleak Nepaleko erreka baten piraguan egindako jaitsierea erakusten dau.

**Areatzako IV. Mendi Martxea**  
Zapaturako, eta Mendi Astea-

ri amaierara ipinteko, mendi martxea antolatu dabe. Hilaren 12an izango da eta partaideak goizeko 08:00etan urtegitira herriko plazatik. Ibilbide bi dagoz aukeran. Ibilbide laburra 19,5 kilometro eta mila metroko desnibela dauka, luzeak, barriz, 27,5 km eta 1.500 metroko desnibela. Luzea egiten dabena Areatzako edurtegitik eta mugarietatik pasauko dira eta 1.116 m.ko altueraraino igoko dira. Ibilbide bietan, Mendigana eta Upoko

tontorrak zapalduko dabez ibiltariak. Horniketa puntu bi egongo dira eta amaitueran parrilladea eta zozketea. Areatzako Hotel Bainuetxean gau bat eta Atxarte Mendiko dendako materiala zozketatuko dira.

Izena, martxearen egunean bertan emon daiteke urtekera lekuan 07:15etik aurrera, 10 euro ordainduta. Urri lehenengoaren 10a baino lehen internet bidez emon ezker, 7 euroko prezioa dauka.


**Hilaren 9tik 12ra izango da Mendi Astea.**

## GALAPAN

## Andrak galapan egiteko ekimena Lemoan

**Erredakzioa**

"Gu be bai runners Lemoan" izeneko ekimena ipini dau martxan Lemoako Udalaren Bardintasun Sailak. Ekimenaren helburua andrak alkarregaz kirola egitea da, bai oinez, bai galapan. Horretarako, prestatzailea Iraia Garcia atleta zor-

notzarra izango da, entrenamentua behar dan moduan prestatzeko: beroketak, luzaketak... Kirola egiteko orduan, hiru aukera egongo dira: oinez egitea, galapan egiten hastea eta galapan egiten jarraitzea. Prestatzaileak andra bakotxari egokitutako entrenamentua proposatuko dau.

Ekimena aurkezteko, Lemoako Bardintasun Sailak batzarra antolatu dau urri lehenengoaren 15ean, 19:30ean Elizondoko Kulturgunean. Antolatzaileak Lemoako andra guztiak animau gura dabez galapan egiteko taldean parte hartzea.

**Igorren be runners**

Ez da andrak galapan egiteko Arratian osotuten dan lehenengo taldea. Izan be, pasa dan apiril ipini zan martxan ekimen hau Igorren, eta bertan edade eta preskakuntza desbardineta 25 andra inguruk hartzean dabe parte.

## AZKOREA

# Urrezko Aitzol Atutxa

### Irati Urien

Aitzol Atutxa disfrutetan dabil azkorako saio bakoitzean eta hori, emoitzen igarten da. "Horrek aurrera jarraituteko gogoia emoten deusta, entrenetan segiduteko", dino Dimakoak.

Abuztuaren 15ean Donostiako Trinitate plazan jokatu zuen Urrezko Kopa, eta hiru urtez bigarren gelditu ostean lehenengoz txapel-dun bilakatu da Atutxa. Azkolari bakoitzaren bete beharreko lana hamalau kana-erdiko moztea zuen eta Arratiakoa lehenengo postuan mantendu zuen hasieratik amaierara arte. Urrezko Kopan atzeneko Euskal Herriko Txapelketako bost onenak lehiatu ziren Donostian eta faborito nagusia Atutxa bera zuen. Holantxe geratu zuen sailkapena: Aitzol Atutxa, Jon Irazu, Iñaki Azurmendi, Joseba Otaegi eta Joxe Mari Olasagasti. Jon Irazu zizurkildarrak 34 minutu eta 7 segundugaz lortu eban bigarren postua; Aitzol Atutxak oster, 32 minutu eta 7 segundugaz marka hobetu ez, baina irabazi egin eban.

Urrezko Aizkorako Txapel-dunen Ligari jagokonean, Jon Rekondo

euki eban aurkari Aitzol Atutxak abuztuaren 17an Gernikan. Saio osoan zehar aurrea hartuta ibili zuen Atutxa, Rekondo leitzarrek ez eban aukerarik izan. Proba danak irabazi eban Atutxak, bat izan ezik, bardiñdu egin eban. Abuztuaren 27an Ligako hirugarren jardunaldia izan zuen eta proba danak irabazita Donato Larretxea garaitu eban Bilboko Areatzan Aitzol Atutxak. Orain bigarren buelta falta da Urrezko Aizkorako Txapel-dunen Ligan, bes-

te hiru saio. Liga hau garrantzitsua bai, baina garrantzitsuena Euskal Herriko Txapelketa dala azaldu deusku azkolariak eta hara begira dagoala orain. "Urrezko Kopako bolada hartuta Aiako Kanporaketan sailkatu eta urri bigarrenaren 12an Basaurin ospatuko dan Euskal Herriko Txapelketako finalerako pasea lortutea da helburu nagusia. Igaz irabazi egin neban, ia postu on bat lortuten dodan behintzat".



Aitzol Atutxa.

## HERRI KIROLAK

# Lasto Altxatze eta Botatze txapelak lortu dauz "Tubi"k

### Erredakzinoa

Jose Martin Bustintza "Tubi" dimoztarrak Gipuzkoako Lasto Altxatzeko txapela lortu eban abuztuaren 11n Aian (Gipuzkoa) eta Euskal Herriko Lasto Botatze txapela Algortan kirol honeetan onena izaten jarraituen dauala erakutsiz.

Gipuzkoako Lasto Altxatzeko Txapelketan, txapela lortuteaz gainera, marka be apurte eban dimoztarrak 25 jasoaldi eginda. Lehenagoko marka be berea zuen eta 24 jasoalditan egoan. Bigarren postuan Lander Otermin sailkatu zuen 22 jasoaldi eginda.

Euskal Herriko Lasto Botatzeko Txapela be irabazi eban abuztuaren 14an, 6,30 m.ko marka eginda. Andde Arbenoitzen egin eban bigarren eta Jose Lapazaranez hirugarren. Biak 12 kiloko fardoak 6 metroko altuera pasetea lortu eban. Honegaz, Tubik Euskal Herriko Lasto Botatzeko hamargarren titulua eskuratu eban.

### Hurrengo zitak

Temporadea ez da amaitu eta txapel gehiago lortzeako aukerak daukaz Tubik urrietan. Izan be, urri

lehenengoaren 19an, Elizondon jokatu dan Zazpi Herrialdeetako Lasto Altxatzeko Txapelketan hartuko dau parte, oraingoan be, Gipuzkoa ordezkatzen.

Urri bigarrenaren, Euskal Herriko Lasto Altxatzeko Txapelketa izango da. Han be egoteko asmoa dauka Dimakoak, eguna eta lekua ondino zehazteko egon arren.



## BOLA JOKOA

# Maximo Beitiarentzat Zeanuriko Bola Txapelketea

### Jon Urutxurtu

Igaz legez, aurten be Maximo Beitiak eskuratu dau 2015eko Zeanuriko Bola Txapelketea. Finala San Lontzon jokatu zuen, abuztuaren 11n, San Lontzo bigarrenaren, eta bertan urtean zehar auzuneetan jokatu hiru txapelketetako —Alzuakoa, San Justokoa eta San Lontzo bertakoa— lehen lau sailkatuak hartu eban parte. Maximok "gerrea" (desenpatea)

jokatu behar izan eban Eusebio Larrazabalegaz, eta hemen lortu eban 2015eko txapela. Bigarren eta hirugarren lekuetan Eusebio Larrazabal eta Esteban Ozerinjaregi sailkatu ziran.

Zeanuriko bolarien hurrengo zitea Altzuztan izango da urri bigarrenaren 3an, zapatuan, San Migel jaietako egitarauaren barruan, eta kofradien arteko taldekako txapelketea jokatu da bertan.



Maximo Beitia txapel-duna bola jaurtiten.

## BTT

# Ubideko IV. Mendi Bizikleta Martxea hilaren 12an



Igazko BTT martxako partaideak Ubideko plazan.

### Erredakzinoa

Ubideko IV. Mendi Bizikleta Martxea urri lehenengoaren 12an izango da, goizeko 09:30ean Amexier Mendi Taldeak antolatuta. Ibilbideak 41 km. ditu. Ubideko plazan izango ditu hasierak eta amaierak. Izena egunean bertan emon daiteke 08:00retatik aurrera plazan. Aurretik egin gura izan

ezkero, kirolprobak.com webgunean emon behar da izena.

### Ibilbidea

Mendi Bizikleta Martxako partaideak, honako ibilbide hau egingo dabe: Ubide, Upeteko Landak, Saldropo, Salutrieta, Otzarreta, Upete, Zubizola, Ubide, Siskiño, Alaran, Harrobiak, Lexaranda, Atxurdin eta Ubide.

## JAIA

**Arratiako motorzaleen festa, taldearen hamabosgarren urteurrenean****Erredakzioa**

Arratiatik zeharreko urteroko pasealdia eta ondorengo jaia egingo dabe motorzaleak urri lehenengoaren 5ean. Herri kirolak eta motor jokoak bat egingo dabe arrastian. Akanpetako lekua eta aldagelak be egongo dira. Aurten Arratia Motor Taldeak hamabosgarren urteurrena ospatuten dau.

Igorreko Berezi tabernan bilduko dira motorzaleak izena emon eta Arratiatik zeharreko ibilbideari ekiteko. Bidean pintxoak jateko geldialdiak egingo dabez. Jai giroak Igorreko eskoletan jarraituko dau ibilbidearen ostean.

Bazkalostean, herri kirolak eta motor jokoak izango dira eskoletako patioan. Arratiako kirolariak herri kirolen erakustalditxoak egin ostean, motorzaleak be animauko dira txingak eroaten, ingudea



alxtatzen eta beste hainbat kirol praktiketan. Umorea ez da faltauko. Ertaroko zaldunen torneo gaurkotuen parodian be neurtuko dira eta. "Torneo" horretan, "motor gainean bi joango dira eta eskegita dagoan txorizo edo beste

jatekoren bat hartu behar dau atzekoak" azaldu deutso BEGITUri Jose Mari Fernandez Arratia Motor Taldekoak. Gauza serioagoetarako tartetxoa be egongo da eta Galdakao autoeskolak kotxea irauli ezker, zer egin behar dan azalduko

dau, berbarako.

Kontzertuak zazpiretan hasiko dira. La banda de Jalber eta Blaster M taldeak joko dabe. La banda de Jalber Portugaleteko taldea 2011n sortu zan arren, musikari beteranoak osotuta dago. Izan be, batzuek 15 urte daroetz joten eta La zona edo Rabia taldeetako partaideak izandakoak dira. Ondoren, Gernikako Blaster M taldeak joko dau erritmoa ipiniz zapatu iluntzeari.

Sari banaketea eta opari zozketeagaz amaituko da jai.

**Egitaraua**

**10:00**etan, izen emotea. Izena emon daben lehenengo 200 lagunak kamiseteta opari.

**11:00**etan, Arratiako bailaratik ibilbidea, pintxoak jateko geldialdiak barne.

**13:30**ean, eskola gunean, Zeanuriko trikitalari gazteak.

**14:30**ean, bazkaria izena emon dabenentzat.

**16:30**ean, herri kirolak, motor jokoak eta bestelako jolasak.

**19:00**etan, kontzertuak, La banda de Jalber eta Blaster M.

**21:00**etan, sari banaketea eta opari zozketea.

## IKASTAROAK

**Lemoako ikastaroetan izen emotea hilaren 9tik****Erredakzioa**

Lemoan, 2015-2016 ikasturteko lehenengo hiruhilabeteetan izan edo hasiko diran ikastaroetan izena emoteko epea, urri lehenengoaren 9an zabalduko da udaletxean.

Urtero lez, eskeintza handia eta eskulan eta informatika moduko ikastaro klasikoak eta barriagoak dagoz aukeran, pintxo ikastaroa, berbarako. Honeek dira urrietan hasiko diran ikastaroak: Sukaldaritza: autore sukaldaritza miniaturan eta askotariko pintxo ikastaroa, Bizikletearen mekanika, Patchwork, Zoru pelbikoa indartzea, Euskara ikasi eta erabili, Eskulan ikastaroa eta Informatika.

Prezio desbardinak izango ditue ikastarook Lemoan errolatuentzat, Lemoan errolatutako langabetu eta ikasleentzat, Lemoan ez errolatutakoentzat eta Lemoan ez errolatutako langabetu eta ikasleentzat.

# www.begitu.org

publizidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

**Arratia, Ubide eta Zeberioko euskerea eta kulturearen alde**

**Hamabostero Begitu zure etxean**

**begitu**  
arratia ubide zeberio

**12 urte eta gehiago**

**Egin zaitez zeu be Begitu-lagun**

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.  
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€



Moztu eta bidali helbide honetara:  
Zertu Kultur Elkarte, Herriko plaza 24, 48142 Artea



FILMA

## Donostiako Zinemaldian estrenaiko da *Pikadero*



Ben Sharrock eta Barbara Goenaga.

Donostiako Zinemaldiko Zuzendari Barrien sailean estrenaiko da Arratian grabatutako *Pikadero* filma. Pelikula honen zuzendaria Ben Sharrock britaniarra da, baina produktorea Irune Gurtubai igorretarra eta arratiar asko agertzen dira bertan estra lanak egiten.

Donostiako Zinemaldira urtero mundu osoko zinemagileak aurkezten dabez euren lanak. Zinemaldiko komite batek pelikulak ikusten dauz eta batzuk aukeratu. Aurten Zuzendari Barrien sailean 14 pelikula egongo dira, tartean *Pikadero*.

### Erredakzioa

***Pikadero* pelikulako produktorea zara. Azaldu apur bat horrek zer esan gura dauan; hau da, zein izan dan zure lana pelikula honetan.**

Produktore mota desbardinak dagoz eta apur bat danetik egin

behar izaten dogu.

Hasikeratik egoten gara proiektuan sartuta, gidoiaren bersino desbardinak irakurri eta eretxia emoten, gidioa landu eta hobetuten joateko. Ondoren, dirua bilatu behar da, hori barik ezin da pelikularik egin eta. Gero, aktoreak eta talde teknikoko kide

guztiak lortu behar dira, estrak, grabetako lokalizazioak... Eta pelikulan agertzen dan dana. Egiteko garrantzizuenetariko bat dirua jagotea da. Gidoia amaituta dagoanean aurrekontu bat prestatzen dau produktoreak eta aurrekontu horren barruan mantenu behar dira pelikulearen gastuak. Grabaketea amaituten danean be produktorearen lana ez da amaituten, postprodukzioan egoten gara edizinoa zelan doan ikusten eta behar dan guztia koordinetan: irudiaren edizinoa, soinuaren edizinoa, kolorea, musika konposiziona... Egia esan grabaketea amaituten danean lanaren erdia baino ez da egoten amaituta.

**Pelikulea Arratian grabautu dago, estrak be Arratiakoak... lotura handia dauka pelikuleak Arratiagaz. Beste loturarik?**

Ni Igorren bizi naz eta Ben-ek (Ben Sharrock), gidoiaren idazleak, denpora asko pasau dau Arratian. Hemen egoala etorri jakon gidioa idazteko inspirazinoa, eta horregaitik beti imajinatu egin dogu Arratian. Ia dana bertan grabatu dogu eta estra bila hasi ginanean, bertako jentea imajinatu genduan pelikulan. Egia esan jente asko animatu zan eta oso gustura egon ginan eurekaz.

**Ze hizkuntzatan dago grabautu?**

Pelikulea euskeraz da. Eszena baten Argentinako gizon bat agertzen da eta beragaz erdaraz egiten dabe berba pertsonajeak, baina horrez gain dana euskeraz da.

**Zer suposatzen dau pelikulea Donostiako zinemaldian estreneteak? Zeu ze ekitalditan eta ze egunetan egongo zara?**

Pelikula honetan lanean hasi ginanetik, beti gura izan dogu Zinemaldian estrenetea, hori zan gure helburua. Itzelezko poza hartu genduan Zinemaldian estrenaiko dogula jakin genduan. Donostiako Zinemaldia munduko onenetakoa da, eta pelikulea bertan estreneteak asko lagundu ahal dau, adibidez zinemaldi gehiagotara joateko, zinemetan estre-

## BERTSO BAZKARIA

### Paia eta Bartra Lemoan

#### Erredakzioa

Fredi Paia, 2014ko Bizkaiko Bertsolari txapeladuna, eta Oihana Bartra, laugarren egin ebana, Lemoan egongo dira urri lehenengoaren 12an Elizondoko bertso bazkarian. Bazkalurretik eta bazkalostean, poteo musikatu egongo da Arratiako Musika Eskolearen eskutik.

Maila handiko bertsolariak izaten dira urtero Elizondoko bertso bazkarian, eta aurten be lujozko zitea daukie bertan bertsozaleak. Fredi Paia (Algorta, 1981) bertsolaria, musikaria eta etnografoa da eta bertsolarietaz lotutako

ekimen barrizaille askotan parte hartu dau. 2013ko Txapelketa Nagusian finalaurrekoetara sailkatu zan eta 2014an Bizkaiko Txapela lortu eban. Oihana Bartra (Bilbo, 1984) irakaslea eta itzultzailea da lanbidez eta bitan hartu dau parte Bertsolari Txapelketa Nagusian. Bertso bazkaria plazan izango da. Tiketak udaletxean erosi daitezke hilaren 4ra arte.

#### Arratiako Musika Eskolea

Arratiako Musika Eskolak alaituko dau poteoa. Eguerdikoa 13:00etan hasiko da Kodigoa tabernetatik. Arrastian, 18:30ean izango da Elizondotik zehar.



tako, edota industriako jentearen radarrean sartzeako. Zinemaldi osoa Donostian pasauko dogu, eukiko doguz egitekoak! Estreinaldira joango gara eta atzenengo galara be bai, beinke!

**Eta zinemaldiaren ostean...**

*Pikadero* Zinemaldian estrenaiko da eta hortik aurrera beste zinemaldi batzuetara joango da, mundu osoan zehar. Momentuz ez daukagu zinematarako datarik, baina Gabon aurretik zine aretoetan izatea espero dogu.

**Okindegia**  
+ Ke... PAN  
Etxean bertan egindako pastelak

**IGORRE**  
Lehendakari Agirre 11  
94 656 65 52  
Sabino Arana 35  
94 657 3898  
**AREATZA**  
Goiko kalea 8  
94 608 90 47

**ARA OTZ**  
Landegian o jabetzen!

**Kili-Kili** Umeen denda

**Umeen denda**  
94 673 63 51  
Agirre Lehendakaria 10  
Igorre  
kilkiligorre@gmail.com

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

**Olaetxe**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazinoa  
Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

## AGENDEA

**URRI LEHENENGOAK 1  
DIMA**

Hilaren 22ra arte, Dimako Kalenturak II. Ipuin Lehiaketara bialdu daitezke lanak. Dimako Udala z/g 48141 Dima (Bizkaia), edo kultura.dima@bizkaia.org helbidera.

**URRI LEHENENGOAK 2  
DIMA**

Obako jaiak. 11:30ean, mezea; 12:00etan, trikipoteoa; Sormen arrastia: 18:00etan, neure markako kamiseteta; 19:00etan, txokolatea.

**LEMOA**

12:00etan mezea San Antolinen. Ondoren, baraskarria; 14:00etan, Baba Lehiaketea. Lapikoen aurkezpena; 17:00etan erromeria Jokaldi taldeagaz.

**ZEBERIO**

Zeberioko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**URRI LEHENENGOAK 4  
DIMA**

Andraizeak antolatutako itsasontzi ibilaldian izena emoteko azken eguna.

19:30ean, "Diman etxean gure doguz" errepresaliaduen aldeko konzentrazioa plazan.

**URRI LEHENENGOAK 5  
DIMA**

Obako jaiak. 11:00etan, bizikleta igoera; 12:00etan, eskulanean erakusketea; 13:00etan, poteoa; 19:30ean, antzerkia *Brillantinea* antzezlan; 20:30ean, txixi-burruntzia; 21:00etan, Bola Txapelketea.

**IGORRE**

Arratia Motor Taldearen XV. Urteurreneko jaiak. 10:00etan, izen emotea; 11:00etan, Arratiako bailaratik ibilbidea; 13:30ean, Eskola gunean, Zeanuriko trikitalari gazteak; 14:30ean, bazkaria; 16:30ean, herri kirolak, motor jokoak eta bestelako jolasak; 19:00etan, kontzertuak, La banda de Jalber eta Blaster M; 21:00etan, sari banaketea eta opari zozketea.

**LEMOA**

Mendietako jaiak. 14:00etan Auto Slalom-a eta ondoren sardina jana.

**Desentxufatuak umorezko antzezlan  
Arteako frontoian hilaren 12an**

Urri lehenengoaren 12an, arrastiko zazpiretan, Mikel Martinez eta Patxo Telleriak *Desentxufatuak* antzezlan egingo dabe Arteako frontoian. *Desentxufatuak* euskera ikasle eta irakasleentzako katarsi bat da, euskera ikasleen isla deformadua dalako. Baina euskaldun guztien isla be bada eta euskaldunon desio, keja eta obsesinoak adierazoten dauz umorez. Protagonistak euskera ikasle bi dira "munduko euskaldunbarririk zaharrenak", berrogei urte daroetz euskaltegetan eta. Antzezlan hau, *Euskera sencilloaren manifiesto* eta *Larruazetara* antzezlanen eszenarik onenakaz osotuta dago.

**ZEANURI**

07:30ean Ermiten XXVIII. Mendi Martxea. Ibarreta frontoian.

**URRI LEHENENGOAK 6  
DIMA**

12:00etan, krosa Dima-Oba; 13:00etan, poteoa; 14:30ean, auzo bazkaria; 18:00etan, Briska eta Igel Txapelketa.

**URRI LEHENENGOAK 8  
ARTEA**

Arteako jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

**LEMOA**

12:30ean meza nagusia Andra Mari eleizan; 17:00etan, haurrentzako jolas eta tailerrak Zaztaparrak taldeak antolatuta Elizondon; 20:00etan, Uribeko Zeani taldeak *37 bentanea*, *38 pasilloa* antzezlan antzetzuko dau Elizondon.

**URRI LEHENENGOAK 9  
AREATZA**

19:30ean, II. AKKB Argazki Lehiaketako sari banaketea eta parte hartzaile guztien argazkien erakusketea.

**LEMOA**

Hilaren 18ra arte, ikastaro honeetan izena emoteko epea: Sukaldaritza, Bizikletearen mekanika, Patchwork eta Zoru pelbikoa indartzea.

**URRI LEHENENGOAK 10  
AREATZA**

19:30ean, "25 urte kordada bi" berbaldi proiektino Gorbeara aterpetxeko Yolanda Martin eta Joseba Elorrietaren eskutik. Udal aretoan.

**URRI LEHENENGOAK 11  
AREATZA**

19:30ean, berbaldi proiektino Txus Ruiz de Erentxunen eskutik. "Thule Beri 2014-Ur Nomade. Nepaleko erreka jaitsiera piraguan".

**ARRATIA**

Beldur Barik Lehiaketan parte hartzeako epea zabaltzen da.

**URRI LEHENENGOAK 12  
AREATZA**

08:00etan, Areatzako Mendi Martxea. Herriko plazan.

**DIMA**

09:30ean Andraizeak antolatuta itsasontzi ibilaldia Urdaibaitik. Plazatik urtenda.

**IGORRE**

AME Eguna. 11:00etan, puzgarriak; 11:00etatik 14:30ak arte eta 17:00etatik 19:30ak arte, txu-txu tren; 12:00etatik 14:30era eta 18:30etik aurrera "La Pacheca" txarangea; 20:00etan, pintxoak eta suzko zezena.

**LEMOA**

13:00etan, poteo musikatua Arratiako Musika Eskolearen eskutik, Kodigoa tabernatik hasita; 15:00etan, bertso bazkaria. Bertsolariak Oihana Bartra eta Fredi Paia; 18:30ean poteo musikatua Elizondotik.

**UBIDE**

09:30ean, VII. Ubideko Mendi Bizikleta Martxea.

**URRI LEHENENGOAK 15  
LEMOA**

19:30ean, Lemoako Gu be bai Runners-en aurkezpena. Elizondoko Kulturgunean.

## IRAGARKI LABURRAK

**SALDU****PISUA SALGAI**

Igorren. 3 logela, saloia, komuna eta sukalde. Biziten sarteako moduan. Sano-sano argitsua eta eguzkitsua. Kalerantza emoten dau. 115.000 eurotan. Deitu 677 951 606 (Iru).

**HOZKAILUA SALGAI**

Hozkailua furgoneta zein karabanarako. Ia barria, hile bitan erabilita. 630 419 476 edo 94 631 71 45 telefonora deitu. Rosa (Arte).

**SALGAI**

Bogaboo-a eta sehaska zuria saltzean dodaz. Deitu 679 909 869 telefonora.

**SALGAI**

Relax modua daukien narruzko sofa eta besaulkia saltzean doguz. Deitu 653 727 047 telefonora.

**DANERIK****BEHAR BILA**

Etxeko beharrak eta garbiketarako egiten dodaz. Kotxeduna 658 591 307.

**PINTURA IRAKASLE BILA**

Norbait prest egongo balitz pintura

irakasteko eskola orduetatik kanpo Igorre aldean 10 urteko neska pare bateri, seguru konponduko garala. Interesatuak lcbilbao@gmail.com erabili, mesedez.

**BEHAR BILA**

Igorretar euskalduna, Haur Hezkuntza eta administrazinoko ikasketak + kotxea + esperientziagaz, urri lehenengoaren 13tik aurrera, umeak zaindu, etxea garbitu eta beste hainbeste gauzatarako prest. Deitu 639 293 539 telefonora (Eider).

**BEHAR BILA**

Persona nagusiak eta haurren zaintza edo etxeko beharrak egiteko laguntza behar dozu? Deitu konpromiso barik. Grisel 678 104 166.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) era. Mezuak doban dira.**

**Begitu-lagunen txokoa****Zenbaki honetako saridunak:**

1

**Zertu Kultur Elkarteak emondakoa BEGITUREN kamiseteta.**

Esti Garcia (Areatza)  
Marian Garai (Lemoa)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13


urte eta

ehundaka

lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Odol mota guztien hartzaile.  
Zigorra. 2.- Langile Abertzaleen Batzordea. Ahozkoan, zer. 3.- Uretako hegazti. Azken letrea. 4.- Sasoi. Azpi. 5.- Ate-leiho. 6.- Lutezioa. Euskadin sortutako musika talde bat. 7.- Bokala. Ugin. 8.- Emea ez dana. Galdetzailea. 9.- Gorantza joan. Nori atzizkia.

### GOITIK BEHERA

1.- Aukeran. Bat erromatar.  
2.- Atxilotu. Zidarra. 3.- Lasai. Zuiako mendia eta santutegia. 4.- Konsonante bat. Tartamutu. Nitrogenoa. 5.- Ezen. Aurreko urtean. 6.- Neoiaren sinboloa. Azpil. 7.- Bokala. Arratiako herria.



Topau herriko jai askotan egoten diran zazpi elementu.

Z	O	R	T	U	K	O	L	A	N
E	R	R	I	B	A	D	E	K	A
U	B	K	A	U	S	A	N	T	A
B	E	G	A	R	U	L	I	A	R
I	R	R	E	U	G	O	T	E	Z
K	B	A	R	H	I	L	G	N	E
O	E	S	N	A	J	O	L	S	T
K	N	U	R	N	L	A	D	O	X
L	E	R	I	D	A	D	A	X	I
O	A	Z	T	I	K	O	O	T	E
M	E	N	T	A	K	A	R	I	N
E	Z	T	O	S	A	B	I	R	A
U	B	R	O	E	L	I	P	U	R
S	D	I	H	I	K	O	E	G	E
O	K	A	L	E	J	I	R	E	A

# AKI MI KO

Ait ziber



umean moda  
**seim**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnos. 94 631 92 96 • seimmoda@hotmail.com

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu  
Bixarra egin eta txukunduten dogu  
Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543  
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

**AKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
IGORRE

**ASEGURUAK**  
basola Emaldi  
Abokatuak  
☎ 620. 57.86.04  
@ aslerabasola@hotmail.com  
Bilbao-Zeanuri

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**Egin zaitez Begitu lagun!**

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...  
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA  
Tfn. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a ☎ 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54

\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
☎ 94 631 92 06

**Pinturas Aratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta eskuratzeko zain egon  
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: unozaku@euskatel.net

## IKER MINTEGI

## Urtean 30.000 turista inguru etorten dira Areatzara

Arratian turismoak gora egin dau nabarmen atzen urteotan.

Udan batez be begibistakoa da. Areatzako Hotel Bainuetxean

urtean 30.000 lagun inguruk hartzean dabe ostatu. Iker

Mintegi bilbotarra da bertako zuzendaria. Valentzian, Galizan

eta Bilbon behar egin ostean, etorri zan Mintegi Areatzara,

orain dala sei urte, bainuetxeak atek zabaldu ebazanean.

Bertan lan egin eta bizi da harrezkeroztik.

## Erredakzioa

**Pasa dan mendearen hasieran, Areatzako bainuetxera Bilboko aberatsak etorten ziran udan. Uste askoan zarratuta, orain dala sei urte zabaldu ebazan atek barriro bainuetxeak. Uraz aparte, lehengo haretatik gordetzen dau ezer oraingo Hotel Bainuetxeak?**

Instalazio guztiak barriak dira. 1.950eko hamarkadan zarratu eban, bainuetxeen gainbeheraren sasoiari, eta ez da ezer mantentzen. Bainuontzi gehienak errekan amaitu eban eta baten bat erreku-perau dogu. Tratamendu motak eta jentearen hona etorteko errazoiak mantentzen dira; baita sufredun urak be eta honeen onurak osasunerako.

Sufredun urak azalerako onak dira. Lehengo bainuetxearen sasoiatik dagoz segurtatuta onurok psoriasis, narritadurak, eta abar osatuteko. Ur hau, basa eta krema batzuk emonda ona da azalerako. Arnasbideetarako be bai, inhalazioak egin edo basak paparean emonda. Herrian batzuk edan be egiten dabe ur hau, baina guk ez dogu hori gomendatzen.

**Zenbat turista egoten dira Areatzako Hotel Bainuetxean?**

Hotelera urtean 30.000 turista etorten dira. 65 logela daukaguz. Urteko batz besteko okupazioa % 65-68 artekoa da. Asko da

Areatza moduko leku baten dagoan hotel batentzat.

**Ze hartu-emon mota dauka Hotel Bainuetxeak Areatzako beste ostatu eta tabernakaz?**

Hotel bat ipintea ona da herriarentzat. Izan be, eguneroko jardunerako gauza asko behar izaten dira: prensa, jatekoa, edariak, informazioa... danetik! Herriari bizitasuna emoten deutso eta jentek hori eskertu egiten dau.

Hemendik 30.000 turista pasetan dira eta herria lehen ez eukan eskari horretara egokitzen doa. Lehen ostalaritza, kaleko bezeroarentzako zan; orain, barriz, kaleko zein kanpoko bezeroari egokitutako ostalaritza da. Areatzako ostatuak lehen landuten ez ebezan eremuak landuten hasi dira.

Udalagaz be hartu-emon handia daukagu. Beragaz egiten dogu urtero Musikasua ikuskizuna eta lankidetzat handia dago geure artean. Bai guk euren beharra daukagunean (aretoak alokatzeko, karpak behar doguzanean...), eta baita be eurak daukienean gure premina; hau da, azoketan herriko produktuak promozionetako gure beharginak, instalazioak edo produktuak behar dabezanean.

**Areatzako uragaz egindako produktu kosmetiko batzuk atera dozuez, Areatzako bertako kosmetikea, beraz.**

Bai. Bainuetxe guztiak erabilten dabez produktu estetikoak eta ho-

rreetako batzuk sendagarriak dira. Merkaduan danetik dago. Guk gura izan dogu bainuetxeko uragaz onura minero-medizinaldun produktuak egitea. Horregaitik, Errioxan dagoan Duaner laborategiagaz ipini ginan kontaktuan eta etxean asko erabilten diran 9 produktu egin doguz, ur sufredun 500 bat litro Errioxara bialduta.

Produktuok, besteak beste, body milk, eskuetarako krema, txanpua, bainurako gatzak eta gel hotza dira. Azpimarratu gura dot danak dirala gomendagarriak osasuna hobetuteko. Holan, gel hotza ona da gorputzaren tenperatura jeisteko eta giharretako minak kentzeako; gorputzeko krema sano ona da azalarentzat sufredun uragaz eginda dagoalako; baita txanpua, eskuetarako krema eta abar. Produktuok salgai dagoz Areatzako hainbat dendatan. Bertako produktuak egin gura izan doguz eta orain komertzializetan gagoz.

**Areatzan tabernari alkarte bat be badago. Zergaitik sortu zan eta zer egiten dozue?**

Alkartera sortu da bezero kopuru eta mota barriari zerbitzua egokitzeko. Neu naz Areatzako Tabernari Elkarteko presidentea. Hotela heritik aparte dago, psikologikoki behintzat, eta ni saiatzen naz azaltzen kanpoko bezero batek zer eskatzen dauan. Hemen ohituta gagoz agoz agokoagaz funtzionetan, baina hori ez da ailegetan hona datozen 30.000 personakana. Beste gauza batzuk egin behar dira eurak erakarteko.

Tabernari alkartera urtebete t'ardi daroa funtzionetan. Jaietako atzen egunerako Pintxo Lehiaketea antolatu dogu eta txarangea be ipini dogu jentea kalean egon daiten bultzatzeko, herriko jaiak izan daitezkan, jentea hotelera be etorri daiten jan eta edatera, eta jaietan parte hartzeako alkarte moduan.

**Arratian turismoa bultzatzeko Gorbeialdek be egin ditu hainbat ekimen.**

Gu be Gorbeialde Turismo Saileko partaide gara. Batzarretan eta ebartzietan parte hartzean dogu. Gorbeia Central Park proiektuaren hasieratik gagoz bertan. Gorbeialde landa eta baserri inguruko alkarte bat izatetik, turismoa be kontuan izatera pasau zan eta nire ustez



horretan Hotel Bainuetxeak euki eban bere eragintxo.

Zer gertatzen jaku? Egokitzen beti errealidadearen atetik doala. Turista aurretik doa beti, eta ostalariok egokitu behar gara. Eguneroko egiten beharreko lana da hori. 30.000 persona dira eta euren ondasun guztia ez da geratu behar Bilbon, Donostian edo Gaztelugatzen, Arratian be geratu behar da. Eta eurak ezetu behar dabe hain ezezaguna dan bailara hau. Nik uste dot, Arratia leku turistikoki garrantzitsua izan daiteke.

Gorbeialdek sano behar inportantea egin dau Arratia mailako produktu bat ezarri. Produktua dinodanean esan gura dot bezeroak hona etorteko garatu dabezkan ekimen guztiak: Gorbeialde Central Park, gastronomia ekimenak, Basquetour-en egindako formazio eta hobetze planak... Hori dana lehenengo pausu bat izan da, baina bigarrena falta jaku, bezeroarengana ailegetea. Gorbeialderen hurrengo pausua hori guztia bezeroari heldu arazotea izan behar da. Ez dau ezertarako balio produktu bat sortzea ez bada komertzializetan. Produktua saldu egin behar da. Batzuetan arazoak izaten doguz Parke Naturala dalako, baina sano jarduera originalak dira Gor-

beia Central Park-ekoak eta sariak be jaso dabez. Orain beste pausu bat emon behar da bezeroak horreen barri jakiteko.

**Areatzara datozan turistek plana zein izaten da? Zer ikusten dabe?**

Turista mota asko daukaguz. Batzuei ez jakie inporta hau bainuetxea dan ala ez. Bikotekideagaz edo kuadrilan etorten dira, zirkuitu termala egiten dabe, heritik buelta bat emon, bazkaldu, mendira joan... gau bat emon eta alde egiten dabe.

Daukagun turista porzentaje handi bat edadekoak dira. Adineko talde turistikokaz eta Insero termalagaz egiten dogu behar. Mota honetako turistak termak erabili eta inguru ezetutea gura izaten dabe. Bainuetxeak eta ur mota desbardinaren ezaugarrien jakitun dira, baita zeintzuk diran euren preminak eta tratamendu bila etorten dira osatzeko.

Beste turista mota bat mendizalea da. Gorbeia ondoan gagoz eta horregaitik aukeratuten dabe bainuetxea.

Baina ia danak etorten dira gagozan lekuan gagozalako. Euskal Herria bisitetako leku estrategikoan gagoz. Eta gero eta jente gehiago etorten da udan beroagaitik igesi.

**aek**

euskara praktikoa

30 urtean,  
50.000 lagunek  
ikasi dute  
euskara  
gure 100  
euskaltegietan

**Eman izena**



**Arratiako AEK**

- Matrikula zabalik.
- Maila guztiak. Azterketa ofizialak (1., 2., 3. eta 4. maila)
- Orduetegi zabalak.
- Arratiako udal guztiak diruz lagunduta.

Agirre Lehendakaria 4, Igorre  
94 631 56 57 · 607 632 916  
[arratia@aek.org](mailto:arratia@aek.org)